

Arrasate

P R E S S

2001.eko
irailaren 21a
554. zenb.



euskarari

Zure ametsetakoa trajea dugu...



Aukerarik zabalena
festarako soineko,
barruko moda
eta osagarrietan.

Casa Cenciaga

Maalako Errabala, 3
ARRASATE

Tel/Faxa: 943 79 12 62

urteurrenak

Besaideko lanak atzeratu

■ 77. zenb.

(1990eko irailaren 21an idatzi genuen)

Besaideren inaugurazioa udaberrirako utzi dute. Artelana Besaidera eramaten ari dira egunotan, baina inguruak txukundu barik daudenez, udaberrira arte itxaron beharko da mendi hori pentsatuta zegoen moduan ikusi ahal izateko. Erosteko dagoen Gipuzkoako lursaila eskuratu ondoren, pinua bota eta belarra erein gura dute, baita iturria konpondu eta barrualdean pago, haritz eta lizarrak sartu ere.



Hizkuntza-eskakizunak onartuta

■ 77. zenb.

(1990eko irailaren 21an idatzi genuen)

Gobernu batzordeak hizkuntza-eskakizunak ezartzeko egitasmoa onartu du. Horren arabera, Mondragoeko Udaleko langileek 1993ko abenduaren azkenera arte izango dute lanpostuak eskatzen dien euskara maila lortzeko. Bestalde, HB, EA, EAJ eta EEK ez zuten onartu sozialistek egingandako eskari bat: Udaletxeko bilkura aretoan aldibereko itzulpen sistema jartzea, hain zuzen ere.

Pedrusko San Andres bihurtu

■ 77. zenb.

(1990eko irailaren 21an idatzi genuen)

Duela hogeita bost urte, futbol taldea sortu zen San Andres auzoan: Pedrusko. Orain hamar urte talde hori federatu egin zuten eta orain Pedrusko izatetik San Andres taldea izatera pasatu da. Aldaketa horrekin auzoaren eta taldearen arteko lotura sendotu gura izan dute. Une honetan, taldeak 150 bazkide ditu eta aurtengo denboraldirako bi milioiko aurrekontua dauka.

besteek esana



Egunotan, oso garrantzitsua da zuhertasunari eustea. Izua edo panikoa oso sentimendu arriskutsua da, eta inbertitzaile txikiei sentimendu horrek ez die ondorio onik ekartzen. Nire ustez, itxaron beharra dugu ekaitza pasatu arte (...). Inbertitzaileak zuhertasunari eutsi behar dio, eta beti kontuan izan behar du akzioak epe luzerako inbertsioak direla, eta epe luzerako tarte horretan oso errentagarritasun ona ematen dutela. Egun arriskutsu hauetan, nire gomendioa honakoa da: datorren hilabeteotan, burtsa suspertzen hasten denean, akzioak erosi: susperraldi horrek burtsak azpia jo duela esan nahiko du, eta oso prezio onean erosi ahal izango dugu. Ditugun inbertsioei eustea gomendatzen dut: epe luzera, diru guztia berreskuratuko dugu ».

Alvaro Ispizua
MUKO FINANTZA IRAKASLEA
Arrasate Irratia

(2001eko irailaren 12a)

aurkibidea

• Lehen begiratu	3	• Orain eta hemen	8/9	• Kirolak jokoan	22/24
• Asteko hitzorduak	4	• Txutxumutxuak	10/12	• Kulturaren txokoa	25/26
• Herriaren berbak	5	• Asteko goi	13/15	• Beheko dendatik	28
• Astearen errepasoa	6	• Auzoz auzo	19	• Uhinetan barrena	29
• Inkesta	7	• Etorri eta gelditu	20	• Foto zaharra	30



Euskadiko Kutxako eta Debagoieneko bederatzita udalek, tartean Arrasatekoak, euskara bultzatzeko hitzarmena sinatu dute.



ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otxalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Iker Barandiaran. Kazetariak: Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. Publizitatea: Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). Zuzentzailea: Sergio Azkarate. Administrazioa: Agurtzane Gaiztegorri, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90). Diseinua: Alex Azkarate. Asteburuetako berriemaketa: Lorea Agiriano. Banaketa arduraduna: Naiara Odirozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.500. Logo-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gerlu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
Barikura 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
Barikura 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburategia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jaiégun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

kiroldegiko ordutegia

Irailaren 30era bitartean, Musakolako kiroldegia honako ordutegia izango du: astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 21:30era; zapatuetan, 08:30etik 20:00etara; eta

domeka eta jaiegunetan, 08:30etik 13:30era. Igerilekuak 09:30ean zabalduko dituzte aste osoan; lanegun eta zapatuetan, 20:30ean itxiko dituzte, eta domeketan, 13:30ean.

egitamu orokorra

Arrasateko udal egitamu orokorra jendarean dago Monterronen, urriaren 11ra bitartean. Bestalde, irailaren 24rako azalpen ber-

baldia antolatuko du Udalak leku berean, 19:00etan.

torturaren aurkako bilkura

Irailaren 24an, 19:00etan, Seberren, *Tortura Stop. Guztion esku dago* honekin amai-

ztea leloarekin mobilizazioa egingo da.

35eko kintoak

Urriaren 1ean egingo dute batzarra 35eko kintoek. Aurten, emakumeei dei berezia egiten diete parte hartzeko. Irailaren 27a bai-

no lehenago eman beharko duzue izena, David Arzamendiri (943791485) edo Pedro Zumelagari (943790591) deituta.

ur eta zabor zergak

Aurtengo bigarren hiruhilabeteko ur eta zabor tasen ordainagiriak urriaren 11n ordaindu ahal izango dira azkeneko egunez. Hor-

tik aurrera ordaintzen dutenek %20 garestiago izango dute.

gazte txokoak

Zapatuan, irailaren 22an, Musakolako eta San Andresko Gazte Txokoetan jaialdia izango da, beraien 7. urteurrena ospatzeko. Futbitoia izango da Uarkapen, 15:30ean;

18:00etan, askaria Gaztetxe kanpoan; eta 19:00etan, Anger eta beste talde baten kontzertua.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 21

• Azkoaga, Iturriotz

Zapatua, 22

• Corcuera, Aranbarri

Domeka, 23

• Irizar, Erguin

Astelehena, 24

• Amezua, Santa Marina

Martitzena, 25

• Zabala, Zarugalde

Eguaztena, 26

• Ruiz, Magdalena

Eguena, 27

• Morales, Araba

junior jaialdia

CIM akademiak Junior Jaialdia antolatuko du irailaren 22rako, herriko plazan. 16:30ean, tailerrak eta txokolate jana izango dira; 18:00etan, musika hasiko da.



Ile apaindegirako artikuluak

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

Herritarren berbak

Drogen inguruan

Iker Ezpeleta / AHTren Aurkako Asanbladako Kidea

Gaurkoan, uda hasieratik komunikabide-
etan (batez ere, Garan) izan den debatea
Arrasate Pressera ekartzea da nire asmoa.
Bai, Arrasaten ere ez da makala-eta "dro-
gen arazoa"ren kontua. Gaiak duen kon-
plexutasuna ahaztu gabe, hemen puntu
batzuk komentatzea gustatuko litzaidake.

-Drogak guztiok kontsumitzen

ditugu eta nahiz eta, batez ere,
kezkatzen gaituena gazte-
en droga kontsumoa den,
drogamenpekotasun
gehienak ez daude
adin horietan.

-Ez du zentzurik
drogak "zeinen txar-
rak" diren esateak.
Drogen gaiztotasunaz
autokonbentzitutako gaz-
te batek, arrazoia edozein
izanda ere, substantzia horie-
tako bat dastatzen badu, mundu des-
berdin bat topatuko du, kontatu dioten ames-
gaiztoaren aurkakoa. Non izango du muga
informazio eskasa eta formazio okerragoa
izan duen gazte horrek?

-Kokaina kontsumoa bikoiztu egin da
denbora laburrean, eta estimulanteak, oro-
korrean. Drogak eta kultura edo balioak
estuki lotuta daude. Orain dela urte batzuk
drogak (era onetan edo txarretan) hartzen
ziren nor bere buruarekin edo besteekin
ondo pasatzeko (LSD, heroina...), eta iru-

dia eta besteen aurrean agertzeko era ez
zen hainbeste zaintzen. Gaur egun, balio
neoliberalekin, ondo baino hobeto pasatu
behar da. Gehiago garelako sentiarazten gai-
tuzten drogak, autoak, oporrak... kontsu-
mitu behar ditugu, hau da, kokaina eta esti-
mulanteak drogen kasuan. Kapitalismoa-
ren espiral kontsumista.

"Balio

neoliberalekin, ondo

baino hobeto pasatu

behar da. Gehiago garelako

sentiarazten gaituzten autoak,

oporrak, drogak...

kapitalismoaren espiral

kontsumista"

-Beraz, onartzen badu-
gu, alde batetik, forma-
zioak eta hezteak
(horri apologia dei-
tzen diona surrea-
listatza dut) kontsu-
moan gehiegi-
keriak saihestu eta
horiek atseginga-
rriagoak egiten ditue-
la eta, bestetik, gorpu-
tzean sartu nahi ditugun
drogak hautatzeko orduan
legalizazio edo despenalizazioak
guztioi erabakitzeke gaitasuna emango
ligukeela, zera ondorioztatuko genuke:

-"Drogen arazoa" baino, gizartea da ara-
zoa. Beraz, hori da aldatu beharrekoa; eta
onartuta formazioak, hezteak eta despe-
nalizazioak ez dutela "arazoa"rekin buka-
tuko, beharrezkoa den gizarte aldaketa
horretan aurrerapausoa izango litzateke,
beste faktore batzuen aldaketarekin bat.
Betiko lez, gizarte aldaketa bultza deza-
gun!!

an Emotional Crisis...



Therapist never panics when
presented with a second
person in such a state with an
acute emotional crisis. For
example, the number of the
person.

Emotionally distressed and
weak, she does need more help
than she can get on her
own.


When something must be done to
calm her immediately

Injectable * (diazepam
I.M.

Ready to use, I.M. or IV,
no reconstitution needed

To gain more immediate
control of acute anxiety
and apprehensions

In your bag,
ready to use, when
something must
be done to calm the
patient in
emotional crisis.



* Emozio krisia... Norberak zerbeit egin behar duenean krisi hori berehala baretzeko...
Diazepana, muskulu barneko injekzio bidez.

aste gazte

■ UNIBERTSITATEKO AUTOBUSAK

• Datorren ikasturtean uniber-
sitateko eguneroko joan-etorria
egiteko asmoa baduzu, pasa zai-
tez Gazte Bulegotik eta emango
dizugu horren gaineko informazioa.

■ DIRULAGUNTZAK

• Bidaia agentzietako kudea-
ketari buruzko graduatu ondo-
rengo ikastaroa egiteko dirula-
guntza, Turismoan diplomadu-
nendako. Ikastaroa bukatu ondo-
ren, lan egiteko aukera ematen da.
Epea: abenduak 31.

■ LANA

• Mutrikuko Udalak Hirigin-
tza teknikaria behar du. Epea:
urriak 1.

• Tafallako Udalako lege-
lari-aholkulari juridikoa behar
da. Epea: urriak 5.

• Nafarroako Foru Komuni-
tateak estatistikaria behar du.
Epea: urriak 10.

• Altsasuko Udalean kirol tek-
nikaria edo koordinatzailea behar
da. Epea: urriak 13.

■ IKASTAROAK

• ICTek psikogeriatria ikas-
taroa antolatu du, Portaeraren
nahasteak adinduengan izenbu-
ruean. Hamabost ordu iraungo
du, urriaren 1etik 5era.

■ LEHIAKETAK

• Bilboko Udalak Emaku-
meak kontari narrazio lehiaketa
antolatu du. 5-12 orrialdeko luze-
ra, euskaraz edo gaztelaniaz. Gai
librea. Epea: irailak 28.

• Arrasateko Udaleko Gazte-
ria Sailak antolatuta, XII. Argaz-
ki Lehiaketa, Gazteen ekimenak
gai hartuta. Zuri-beltzean edo
koloretan, gehienez hiru argaz-
ki. Epea: urriak 11.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA
943 77 00 65

USTEAK USTE

Komunikabideen eragina

Nire lagun bati min izugarria egin dio New Yorkeko atentatuetakoa irudiak ikusteak. Harentzat NY oso berezia da, mires-ten du eta oso afektatu-ta ikusi dut. Ulertzen dut lagunaren egoera eta ez dut ukatuko, inola ere, han eginda-koa sarraskia denik. Hala ere, gertaera latz horri komunikabideek eman dioten jarraipenak agerian utzi du, berriro ere, munduan lehen eta bigarren mailako pertsonak daudela. Herrialde horietan halakorik gertatuz gero, hango irudi eta kontuek asko jota bizpahiru Teleberri eta artikulua irauten dute. Horietako gehienak, gainera -bonbardaketa eta ofentsiba militarretaz ari naiz, batik bat-EEBBetako gobernua eragindakoak izan ohi dira. Horrez gain, esan beharra dago atentatu bortitz horrek beste inflexio puntu bat eragin duela. EEBBek eta kapitalismoak ez zuten ordu arte inoiz halakorik bizi eta ez zuten halakorik espero. Orain, EEBBek, euren "estiloa"ri jarraituta, mendekua hartuko dute eta ziur errugabe askoren kalterako izango dela, gainera. Baina, badakizue, berdin dio, "munduaren babesa" daukatelako, betiko legez.

Iker Barandiaran.

astea bi hitzetan

■ Dena onartuta

Egueneko udalbatzarrak 11 gai zituen lantzeko opor osteko lehenengo bilkuran, eta gai guztiak onartu zituen. Besteak beste, Makatzenan garajeak egin ahal izateko arau subsidiarioak aldatzea onartu zuen, baita Roneo parean pabilioiak eraikitze-ko egindako xehetasun azterketa ere; aho batez onartu zituzten gaiok. Senideak-Gureak elkarteak presoak sakabanatzearen kontra aurkeztutako mozioa ere onartu zuen, baina, kasu horretan, EAren, EBren eta EHren aldeko botoekin; izan ere, PPko eta PSE-EEko zinegotziak aretotik joan ziren mozioa irakurtzen hasi aurretik. Eta Jose Mari Loitik, EAJren izenean, adierazi zuen mozioko hiru puntue-

kin ados egon arren, alderdi nazionalista abstenitu egingo zela. Horrek haserrea piztu zuen aretoan zeuden Senideak elkarteak kideen artean, eta irainak entzun ziren. Horrez gain, torturaren erabilera eta presoan urrutzeak ekartzen dituen kalteak ere salatu zituzten aretoan batutako lagunek.

Bukatzean, Eusko Alkartasunak gaitzetsi egin zuen joan den zapatuan herriko ertzainen etxean izandako eraso.

■ Egitamua hizpide

Herritarrei Egitamu Orokorren gainean ahalik eta azalpen gehien emateko asmoarekin ekin dio Udalak hitzaldi saioari. Astelehenean, udal teknikariak Monterronen izan ziren eta, bes-

teak beste, egitamuaren egitura, helburuak eta ordenazio berria azaldu zituzten. Hurrengo hitzordua datoren astelehenean izango da, Monterronen, iluntzeko 19:00etan. Egitamuaren esparruak eta haiei dagokien planteamendu eta kudeaketa arautegia azalduko dute udal teknikariak bigarren hitzaldi horretan.

■ Lanak herrian

Oraingo asteko Gobernu batzordeak herrian hainbat lan egitea onartu du. Esaterako, Hondarribia kalean ur eroanbidea ipintzeko eta Gipuzkoa etorbidean ur sarea berritzeko lanak adjudikatu dituzte. Era berean, Garibai etorbidean eta Zerkaosteta kalean argiteria berritzeko lanak adjudikatu dituzte.

■ Iñakiren omenez

Joan den egubakoitzean, jende ugari elkartu zen herriko plazan Iñaki Sáezi omenaldia egiteko. Hasteko, bilkura isila egin zuten, Senideak-Gureak elkarteak egindako deialdiari jarraituta. Gero, omenaldia hasi zen, Iñakiren lagunek aurkeztuta. Euskalgintzako ordezkari ugari izan zen han, eta horietako batek, Oskar Elizburuk, AEK-ko arduradunak, Iñakiren autobiografia irakurri zuen. Horren ondoren, Emuneko presidente Julen Arexolaleibak presoak sakabanatzearen kontrako idatzia irakurri zuen, eta Iñaki bera ere goraiatu zuen. EH Sukarra musika taldeko Nortonek eta Cesarrek bi abesti kantatu zituzten: *Biharra* (Iñakik egindakoa) eta *Hamar urte kartzelan*; Iñakik egindako abestia ere ipini zuten haren irudiekin batera. Eta omenaldia amaitzeko, trikitilariak Iñakiren gainean koplak abestu zuten han elkartutako guztiekin batera, eta Iñakiren senideei oroigarria eman zieten.



UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketak

Gipuzkoa etorbidea, 6-1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82


M

MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Ze deitxozu erlijio irakasliekin pasau danari?

Irakasle batzuk kalera bota dittue ezkondu bariko bikotekidie eukittiagaittik edo mezetara ez juetiagaittik.



Fermin Madinabeitia
(Jubilaue)

Ez jat ondo pentsetan. Neu fededune izen arren, eurek be ez daue eredurik emuten euren jokaeraz. Eta holan ezin leikixo iñori be eskatu dana beteteko.



Miguel Angel Milán
(Langillie)

Irakasliek be, langilliek dien neurrixen, euren bizitza pribau eukitteko eskubidie daukie, bardin da matematika edo doktrina irakasle izetie.




Antonia Gartzia
(Etxekoandrie)

Neu ez nago elizaren kontra, baiñe irakasle horrek gure dauena egin leike bere lanetik kanpo, eta irakasle ona izeten jarraitu.



Gorka Zubizarreta
(Ikaslie)

Inportantie materixa da, eta ez bizitza pribau e. Banandutako bateaz bizi arren, eta elizak horrei txarto eritxi, doktriñie bardin-bardin erakutsi leike.



Mikel Gotzon López
(Langillie)

Txarto pentsetan jat. Bizitza pribau e ez dauko zertan norberaren lanbidien eragin. Iñork be ez dauko eskubiderik bes-tien bizitza pribauen sartzeko.



Rosa Maria Agirre
(Langillie)

Eliza ezin leike sartu hola-ko kontuetan. Batez be, Elizak berak ez dauelako beteten prediketan dauena. Oso txarto pentsetan jat.



Nerea Etxebarria
(Ikaslie)

Irakasliek ez daukie zertan bete kreduak esaten dauena. Kaleko beste edozeiñen modukuek dien neurrixen, bizitza normala erueteko libre die.



Maider Mayor
(Ikaslie)

Irakaskuntzakin zerikusirik ez daukon gaixa da, eta apur bat lotsagarrixa pentsetan jat ondiokan holako gauzak entzuten egon biher izetie.

BASATI
TABERNA
DINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711768

Rótulos Pando
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun Kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Erauskailuak
Biniloa
Señalizazioa
Lonak
Letra-Korporeoak

Santutxuko harrobia berreskuratu guran

Santutxu harrobia (Kanpanzar bidean) berreskuratzeko lanak egiten ari dira. Hain justu, harrobia lurrez betetzen ari da Galdeano Eraikuntzak izeneko enpresa. Izan ere, ikusi dute beste lan batzuetan batutako eta soberan dagoen lurra Santutxura eraman daitekeela: batetik, harrobia betetzeko egokia delako eta, bestetik, soberan dagoen lurra irtenbidea ematen zaiolako. Betelana amaitutakoan, inguruko landarezekin bat egiteko asmoa dute. Eta Udala-txen gehien dagoen zuhaitz mota artea izanda, horrelakoak landatuko dituzte geratuko den lur zatian. Era berean, lur horri eusteko harrizko egitura bat jarriko dute, errefortzu moduan.

Bi urte barru amaitzea aurrez ikusi dute. Hala ere, betelana oso bizkor egiten ari direnez, epe hori baino lehen



amaitzea espero dute.

GAINERAKOAK

Santutxukoaz gain, herrian beste bi harrobi daude itxita: Altxaurti (Santutxuren parean) eta Etxaluze (San Josepe kalean); eta beste hiru, berriz, jardunean: Kanpanzar, San Josepe eta Kobate. Kanpanzarrek beste 19 urterako dauka ustiatze baimena, San Josepek 4rako eta Kobatek 41erako. Izan ere, harrobiek bizitza-epe jakina izaten dute, eta, behin hori

bukatutakoan, mendiaren jatorrizko itxura zapuztuta gertzen da. Orduan, ustiaketa amaitu behar dute eta inguru hura berreskuratzeko lanak egin; legeak halaxe agintzen die. Eta horixe egingo dute aipatutako hirurek, ustiatze baimena amaitzean. Lehendik dauden harrobien gainean, ostera, legeak ez dauka zeresanik eta bere horretan utzi daitezke. Horrelaxe egon da orain arte Santutxu eta horrelaxe daude Altxaurti eta Etxaluze.

Nagusiak hobeto zaintzeko

Pertsona nagusiak zaintzeko psikogeriatria ikastaroa antolatuko du Hirugarren Adinekoen Komunitate Institutuak. Hain justu, adinduek izaten dituzten portaera nahasketak aztertuko dituzte 15 orduan. Pertsona nagusien zaintzaile edo senideei, osasun alorreko langileei, etxez etxeko edo egoitzetako langileei eta ikasleendako da ikastaroa. Urriaren lehenengo astean izango da, 1etik 5era, 15:15etik 18:15ak arte.

Izena emateko edo informazio gehiagorako Saiolana-ra joan beharko duzue, Nafarroako etorbidean, edo 943771699 telefonora deitu. Sei gai landuko dituzte: zahartzaoren psikologia, afektibitate desorekak, antsietate arazoak, ezagutzazko arazoak, loaren gorabeherak eta demenzian gertatzen diren portaeraren arazoak.

Auto bariko eguna

Gaur, egubakoitza, auto bariko eguna izan da Mondragoen. Udalak deituta, Tokiko Agenda 21en barruko ekimena izanda, "herritarren borondatea mugiarazi eta elkarren arteko hausnarke-ta sorrarazteko". Autoaren erabilera gutxitu eta garraio-bide publiko eta kolektibo-

aren erabilera indartzea da helburua, "zarata eta gas kutsatzaileak txikitzeko eta gure bizi-kalitatea hobetzeko". Ekimen horrekin bat egiten laguntzeko, Leintz Garraioak enpresak herri autobusa doan ipini du eta, gainera, beste linea bat ere gehitu dio.



Kartzela aldaketa

Txus Goikoetxea eta Premin Sanpedro preso arrasatearrak kartzelaz aldatu dituztela jakinarazi digu Senideak-Gureak elkarteak. Soto del Realetik Aranjuezera eraman dituzte biak. Hortaz, apurtxo bat urrutirago, baina Madril inguruan utziko dituzte.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

AL

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Ez daude konforme Musakolan egingo den biribilarekin



Musakolako Oñati kale inguruan egin gura duten biribilak haserre piztu du hango bizilagunen artean. Izan ere, Udalak aukeratutako hasierako egitasmoaren arabera, Oñati kaleko 2. eta 4. atarien aurrealde-raino helduko da biribila eta, horren ondorioz, orain dauden lorategiak kendu egingo dituzte, besteak beste.

GERATUTA

Irailaren lehenengo astean hasi

ziren eztabaidak. Biribila egin behar duen Sukia enpresa lanak egiten hasi zen, eta bizilagunak orduantxe konturatu ziren biribil berria zelakoa izan behar den eta noraino iritsi behar den. Bizilagunen ordezkariak, Joseba Viterik, adierazi digu hori ikustean Udalarekin berba egitera joan zirela eta alka-teak lanak gelditzea erabaki zuela, auzokideekin ados jarri guran. Orduetik hona, Oñati kalekoek alternatiba bat aur-

keztu diote Udalari: biribila bai, baina Udalak esaten duena baino apurtxo bat gorago; horrela, nahiz eta lorategiaren zati bat galdu, ez lukete guztia galduko. Udalak, bestalde, beste egitasmo bat aurkeztu die auzokideei, lorategien zati bat errespetatzen duen egitasmoa, hain justu. Baina auzokideendako ez da nahikoa, hortaz, Udalari eskatu diote eurek aurkeztutako alternatiba aztertu dezala.

SAKONAGO

Eta Udalak, oraingo asteko Gobernu batzordearen bitartez, erantzun die alternatiba hori sakonago aztertu behar duela, izan ere, Oñati kaleko bizilagunendako egokia izateaz gain, biribil berriak Gipuzkoako etorbideko, A20 Industrialdeko eta Oñati kaleko autoen joan-etorria behar bezala bideratu beharko luke.

Hortaz, lanek ez dute aurrera egingo, harik eta Udalak erabakia hartu arte.

Energia berriztagarriak

Energia berriztagarriak aztergai izango dira Mondragoen bi aste buruan: irailaren 29-30ean eta urriaren 13-14an. Energia termodinamikoa, fotovoltaikoa, eolikoa eta mikrohidraulikoa landuko dituzte, eta bakoitzetik lan praktikoa bana egingo dute: esaterako, eguzki berogailua eta mikroturbina bat eraikiko dituzte.

Adituak etorriko dira ikastaroa ematera: Iñaki Urkia arkitektoa, JM "Super", energia berriztagarrietan ikasia, eta Fernando Bengoetxea, Ekain Taldeko instalatzailea. Hogeita hamabi orduan aztertuko dituzte energia mota horiek eta, gainera, instalazio batzuk ere bisitatuko dituzte.

Izena emateko: 943 799784 eta 636 944988. Epea irailaren 24, 25 eta 26a da. Matrikula, berriz, 3.000 peze-ta. Izena ematerako ordena kontuan hartuko dute, 25 lagunendako lekua dago-eta.

Oharra

Joan den astean, Arrasateko euskalgintzak prentsaurrekoa egin zuen, Iñaki Sáezi euskararen alde egindako lan guztiagatik omenaldia aurkezteko. Eta guri ahaztu egin zitzaizgun antolatzaileen artean Txatxilipurdi elkarte ere baze-goela.

Osasuna hizpide

Datorren hilaren 25, 26 eta 27an osasunaren gaineko jardunaldiak izango dira Monterronen. Eroskik antolatuta, opor osteko depresioari aurre

egiteko gomendioak, insomnia eta loaren bestelako gainxotasun batzuk, eta gripearri aurre egiteko aholkuak landuko dituzte. Raquel Barcenilla psi-

kologoa, Alberto Martínez medikua eta Amagoia Murua-mendiaraz medikua etorriko dira hitzaldiak egitera. 16:30ean hasiko dira.



Danona

KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06




Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

*Maritxu gau bereziko
orrazkerarik ederrena*

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE




KOBAZULOTXOA KOSTOBALEN

Ramón Ramilak honako kobazuloa topatu du Gernika oinezkoen zumardian, Kostobalen. Ikus dezakezuenetz, estalagmitaz eta estalaktitaz josita dago. Musakolatik Uribarriraino bidea egiten ari diren inguruan ikusi ahal izango duzue.



ERROMESALDIA ARANTZAZURA

Joan den domekan, urteroko ohiturari eutsiz, ehunka mondragoetar igo zen erromesaldian Arantzazuko santutegira. Gipuzkoako patroiz den Ama Birjinaren omenez. Besteak beste, elizako eta Udaleko ordezkariak izan ziren han.



TATUAJEAK AUKERAN

Joan den zapatuan, Dotakon festa ospatu zuten Monterron parkean. Disko jartzaileen doinura, edo antzerkia ikusi bitartean, aukera bitxia zuten parte hartzaileek: tatuajeak egitea. Ideia argirik ez zutenendako, hamaikatxo eredu zeuden aukeran.



García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak




**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50



BANKETXETIK IRRATIRA

Arralden dagoenean banku-langilea da; handik kanpo, ordea, aktore dugu Jose Antonio Villar. Ikusiko zenuten, Goenkale telesaila jarraitzen baduzue, behintzat. Eta horretaz berba egitera etorri zen lehenengo egunean Jose Antonio.



ESLOVENIARAINO...

... hori bai, lehenengo Venezian geldialditxo eginda joan ziren arrasatear hauek. Hango San Markos plazan dituzue hemen, zeharo nekatuta, lurrean botata. Itxura denez, ahaztu ezineko egonaldia izan zen, batez ere italiarrendako; izan ere, hangoak oso dotore janzten dira, eta hauek, ordea...

ERROMATIK ARRASATEKO KINTO-BATZARRERA

Aita Julian Sagasta Erroman bizi da, han egin zuelako lan organista moduan, baina urtero etortzen da 1914ko kintoen batzarrera. Aurten, urriaren 1ean izango da afaria, Aita Julian datorrenean; baina taldeak berritasunik ere badauka, izan ere, dei berezia egiten diete urte hartan jaiotako emakumeei kinto-batzarrean parte har dezaten. Animo!

500.000 pezeta
gastatzeko gai zara?

*Zatoz, erosi eta irabazi
itzazu 500.000 pezetak*

ibai-arte



GAZTEDIA AURRERA!

Hainbat bekadun ditugu Goienan lanean. Den-denak ezin izan genituen elkartu irratian berba egiteko, baina Jon, Nerea eta Usoa, kazetaritza ikasleak hirurak, han izan genituen. Ikaskez, lanaz, etorkizunaz eta abarrez berba egin zuten, eta oso ondo, gainera!



KALEENDAKO "LABEL" BERRIA?

Egunotan, aldaketa txiki bat sumatu dugu Arrasateko kaleotan: batzuei, izenak ez ezik, izena adierazten duten kartelak ere aldatu dizkiete. Guk hauek aurkitu ditugu, baina ziur zuek dezentte gehiago aurki ditzakezuela edozein egunetan.



Gazte ikastaroak

euskal dantzak

Lore Gazteak taldearekin elkarlanean
10 urtetik gorakoei zuzendua
urriaren 19tik abenduaren 14ra arte
ostiraletan, 19.00-20.30
matrikula: 1.000 pezeta

Izen emateak: Gazte Bulegoa
Tel.: (943 77 00 65)

Arrasaten, bai euskarari! kanpaina abian

Frankoren diktaturako azken urteetan hasi eta 80ko hamarkadan zehar, Euskal Herriko hizkuntza bultzatzeko kontzientzia bereziki suspertu zen. Orduetik hona, gauzak aldatu egin dira, eta guztia eginda dagoela pentsatuta, hasieran zegoen euskararekiko grinak behera egin du. Orduko hamarkadan, adibidez, pentsaezina zen, besteak beste, ikastola-ko irakasleak txikiteoan ari zirela gaztelaniaz mintzatzea edo euskal kazetariak lanean gaztelania erabiltzea. Gaur egun, horrelako adibide ugari dago eta euskararen normalizaziorako bidean lasaitasuna benetako arerioa izan daiteke. Orain arte egindakoa hasiera baino ez dela izan jakinik, euskarari bide luzea geratzen zaio, guztion artean errotu beharreko bidea, hain zuzen ere.

1995ean, euskalgintzako hainbat lagunek, euskararen egoerarekin kezkatuta, zerbait berria sortu beharra zegoela aipatu zuten, euskara berriro bultzatuko lukeen tresna berria, alegia. Urte bi geroago, 1997ko abenduaren 6an, Kontseilua errealitate bilakatu zen Durangoko Historia museoan. Orduetik hona, Kontseilua handituz joan da, bazkide kopurua ugartu egin da eta, gaur egun, Euskal Herrian 49 erakunde daude bere baitan.

Kontseiluaren egitasmoetako bat euskara bultzatzeko *Bai Euskarari* kanpaina izan da. Kanpaina horren lehen batzarrak 1998ko udaberrian izan ziren, eta abendura bitartean ehunka ekintza egin zituzten. 1998ko abenduaren 23an, *Bai Euskarari* akordioa sinatu zuten Iruñean. Egun hartan, hogeita bi gizarte eragile nagusik *Bai Euskarari* akordioa lehen aldiz sinatu zuten. Hilabete batzuk geroago, sina-

dura zabalagoa egin zen. Agian, hoberen gogoratuko den ekintza bost futbol zelaitan ospatu zen jai handi hura izango da. 1998ko abenduaren 28a zen, eta 120.000 lagun ezarriek "bai" esan zioten euskarari. 1999ko otsail eta martxo bitartean, *Lanordu bat akordioaren alde* kanpaina egin zen. Horrela, langilei eta enpresariei lanordu bati dagokion dirua eskatu zieten. Kanpaina hura benetan arrakastatsua izan zen, 181 milioi pezeta batu zituzten-eta. Orduetik hona, lana gogoz egin dute, eta plana hobeto garatzeko beste bide batzuk ere ikertu dituzte. *Bai Euskarari* akordioaren helburua da hizkuntzaren normalizazioak gizarte eragileen aldetik behar dituen konpromisoak hartzea. Hori esateak, besteak beste, partaidetza, adostasuna eta konpromiso indibidualak eta zehatzak nork bere gain hartzea dakar.



Milaka pertsonak, tartean gaztetxo askok bat egin dute *Bai Euskarari* kanpainarekin.

'BAI EUSKARARI' ARRASATEN

Bai Euskarari plana Euskal Herrian uztartu eta gero, Kontseiluak hizkuntzarekiko bultzada herriz herri egin behar dela igarri du, eta Arrasate izango da froga hori bideratuko duen herrietako bat. Proposamena AED euskara elkarteak jaso bazuen ere, Arrasateko euskalgintza batzeko aitzakia aproposa izan da, eta gaur egun, AED, Ekin, ARKO, Txatxilipurdi, Euskalan, Euskal Herrian Euskaraz, AEK, Udal Euskaltegiko langile-

ak, Euskara Saileko teknikariak, Emun, Arrasateko Ikastola, Erguin herri eskola, Arrasateko Institutua eta Merced Ikastetxea buru-belarri dihardute herriko euskara bultzatzeko plangintzan.

Gaur arte euskararen aldeko ekimen guztiak borondate handiz egin badira ere, gaur egun, beharrezkoa da plan estrategiko bat izatea. Hori dela eta, Arrasateko euskararen normalizazioa bideratzeko plan estrategikoa aholkularitza enpresa batek bideratuko du.

ARRASATEN AITZINDARI

Orain arte, euskara bultzatzeko plan eredu bakarra jarraitu dutela esan daiteke, baina Arrasateko euskalgintzak *Bai Euskarari* plana Arrasaten uztartzeko gonbita jaso zuenean, bere plan propioa egitea erabaki zuen. Lehenik eta behin, euskalgintzak denbora eskatu zuen egin beharrekoa argi izateko, eta ondoren erabaki zen lehen pausoa hausnarketa propioa egitea zela. Hain zuzen, puntu horrek bereizten du beste herrietan garatzen ari diren euskara bultzatzeko planetatik. Orain arte, lehen urratsean gizarte eragileekin egiten zen lan, eta horren ostean zetorren euskalgintzaren plana. Arrasaten, aldiz, Euskalgintzaren plana ezarriko da lehenik, eta gero hasiko dira gizarte eragileekin lanean. Hortaz, plan estrategikoaren lehen urratsa euskalgintzak berak egingo duen hausnarketa izango da. Horrez gain, Arrasateko hitzarmenetan egindako lan guztia plan estrategikoan txertatzea erabaki dute, hau da, *Gu Be Bai* hitzarmenak planarekin bat egingo du. Gero, bigarren



Arrasateko prozesuan data esanguratsuak

Noiz

2000ko urria...

2000ko azaroa...

2001eko udaberria...

2001eko iraila...

2002ko urtarrila...

2002. urtea...

Zer

- Kontseiluak Bai Euskarari herrietan ezartzeko erabakia hartu zuen, eta herri pilotu izateko proposamenak egin zituen.
- Arrasateko euskalgintzak herri pilotu izateko erabakia hartu zuen.
- Arrasaterako plana definitu zuten.
- Lehen fasea abian jartzeko erabakia hartu zuten.
- Lehen fasea amaitu zen.
- Bigarren faseari ekingo diote.

«Aitzindaria da, euskalgintzaren plana izango delako lehen urratsa»

urratsa etorriko da, hau da, plana herrian garatzea. Arrasateko plan estrategikoaren garapenean, hainbat sektore bereiztu behar dira, eta sektore bakoitzeko ordezkari bat eratu. Horrez gain, sektore edo talde bakoitzeko plan estrategiko bat egin behar da, lan ildoak identifikatu eta helburu zehatzak finkatu. Oraingoan, talde bakoitzak erabakiko du, baliabide eta egoera ezberdinen arabera, noraino iristeko gai den. Adibideetara jotzen bada, *Bai Euskarari* planak ez dio adieraziko enpresa, kirol elkarte, kultura talde edo dena delakoari noraino egin behar duen. Talde, multzo edo sektore bakoitzaren esku jarriko da hausnarketa lana egitea, eta multzo edo sektore ezberdinak ez daudenez egoera berean, bakoitzak, ahal duen eta gura duen neurrian, helburu finko batzuk ezarriko ditu.



1998ko abenduaren 26an, Euskadiko bost estadioetan kanpaina amaierako ekitaldiak izan ziren.

UDALAK ERE 'BAI EUSKARARI'

Iaz, euskalgintzak gonbita egin zion Arrasateko Udalari plan estrategikoan parte hartzeko. Orduan, plan estrategikoa garatu barik zegoen arren, Udalak hiru milioi gorde zituen plana garatzeko. Aurreko martitzenean, Euskara batzordea izan zen Arrasateko Udalean eta euskalgintzak proposamena aurkeztu zuen. Udalak planarekin bat egin bazuen ere, euskalgintzak izandako forma akats larriak direla eta, plana abian jartzeko erabakia atzeratu egin zen. Udalak aurrez hartu diren erabaki batzuetan zer esana duela azpimarratu du, eta horrenbestez, horiek adostean Arrasateko Udalak plan honetan parte hartuko du, bai jarraipen batzordean (erabakiak

hartzeko organoa) baita lantaldean ere. Horrez gain, *Bai Euskarari* planak sortuko duen onura herri mailakoa denez, euskalgintzak Udalari eskatu dio euskararen normalizazio plana finantzatzea. Euskararen norabidea zuzentzeko lanetan, hitzarmen horiek bide berriak eratuko dituzte, baina gogoan izan behar dugu lana hasi baino ez dela egin. Azken batean, etorkizunak ez dezala iraganen egindako lana alboratu, eta denborak, euskaldunoi zer garen eta zer dugun ahaztarazi baino, zergatik lan egin behar dugun gogorarazi diezagula.

Xabier Urzelai



BADATOZ BERRIRO MULTIESKAINTZAK!

Bonardi monturak familia guztiarentzat.

Distantzia guztietara ondo ikusteko.



**BONARDI
MONTURAK**
4.150 PTA.
(24,94 €)

LENTE*
PROGRESIBOAK
19.500 PTATIK
AURRERA
(117,20 €)



MONTURAK + KRISTALAK*
60 URTETIK
GORAKOENTZAT
8.900 PTATIK
AURRERA
(53,49 €)

MONTURAK + KRISTALAK*
UMEENTZAKO
8.900 PTATIK
AURRERA
(53,49 €)



MULTIOPTICAS


LARRAÑAGA

R.P.S. 104/99

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - ORDIZIA

* Eskaintzaren balioa ± 4 ESF. ± 2 CIL lente txuriendako da.
Eskaintza hauen balioa 2001/10/31 arte da.

**GILTZAK EGITEN
HASIZ GEROZTIK,
DEBAGOIENEAN
EZER EZ DA
BERDIN**



Giltza noiz asmatu zuten argi ez badago ere, erabilera erromatar garaian zabaldu zen.

XVI. mendeko dokumentuetan, dagoeneko, Debagoieneko sarrailagintzaren gainean aipamenak daude.

1906an, garai hartako Euskal Herriko lantegirik handienetakoa sortu zen: Arrasateko Cerrajera.

Gaur egun, eskualdean, giltzak egiten eta sarrailagintzan bost lantegik dihardute eta 600 lagun ari dira lanean. Lantegiok urtean 8.000 milioi pezeta inguruko salmentak dituzte.



Tour Lehiaketa Mundiala

**ARRASATE IRRATIAK
ETA LIZARRALDE
KIROLAK-EK
TOUR LEHIAKETA
MUNDIALEKO
BIZIKLETA EMAN
DUTE.**

**IRABAZLEA:
Aitor Iturriaga**

• ESKULAN IKASTAROA:

Gaiak: egurra, laminak, margoketa, birziklaia, Van Dal, estainoa, zilarra, beruna eta kristala.

Noiz: Irailaren 25etik Abenduaren 18ra bitartean, asteartero 15'30etan eta 18'00retan.

Izenematea: elkartean bertan irailaren 21a baino lehen.

• SALOIKO DANTZEN IKASTAROA:

Noiz: SAKONTZE MAILA: Urriaren 15etik Abenduaren 17ra bitartean, astelehenero 15'00etan. HASTAPEN MAILA: Urriaren 17tik Abenduaren 19ra bitartean, asteazkenero 15'00etan.

Izenematea: elkartean bertan Urriaren 11 baino lehen.

• ZERAMIKA TAILERRA:

Noiz: Urriaren 17tik Abenduaren 19ra bitartean, asteazkenero arratsaldeko 15'30etan.

Izenematea: Urriaren 11 baino lehen elkartean bertan.

• UDAZKENEKO TXANGOA:

Nora: Karrantzako kobak ikustera, besteak beste.

Noiz: Urriaren 27an, larunbata.

Izenematea: elkartean bertan, Urriaren 19a baino lehen.

Ekin
Emakumeak • AED

Interesatuak:
943 77 12 28
610 04 24 39
Pablo Uranga, 6
ARRASATE

Laguntzaileak:



ARRASATEKO UDALA
Emakume Salla



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Patxisena, auzokoen topaleku

Garagartzako Patxisena auzo-etxeak urte ugari darama auzoaren elkargune izaten. Etxea Udalarena da, baina kudeaketa eta garbitze-lanak Garagartzako auzoaren esku daude. Hala ere, egokitze eta berriztapen lanak Udalaren ardura dira, eta baliabideak auzoko diru erreserbetatik lortzen dira.

Auzoko txokorik maiteenetakoa da, batez ere, negu partean, kanpoan eguraldiak aisialdirako aukera handirik eskaintzen ez duenean.

Adin guztietako jendeari zabaltzen dizkio atek Patxisenak, eta guztiek dute euren txokoa. Gazteen lokala, emakumeen txokoa, auzoko batzarrrak... Horiek dira han gartzzen diren jarduera garrantzitsuenetarikoa.

Gazteek bigarren solairuan dute euren txokoa, telebista ikusi edo musika entzun, mahai-jokoetan aritu edo, beste barik, berba egiteko. Kañeria 13 rock taldeak han entseatzten du. Gazteen, edo euren burua gaztetzat jotzen dutenen, lekua da hura.

Goiko solairua Garagartzako eta Santa Agedako emakumeek antolatutako ekin-tzetarako erabiltzen da. Orain dela hiru urte hasi ziren auzotako emakumeak ikastaroak eta batzarrek antolatzen. Dantza ikastaroak eta eskulan tailerrak antolatu izan dituzte, besteak beste. Horrez gain, hainbat hizlari ere izan dira



28, barikue

19:30 Jaixen hasierie, ikurriñien igoeriaz eta etxaflero jaurtiketiaz.

19:45 BIOTZATARRAK txarangiaz kalejirie.

22:00 Dantzaldixe HAITZAMA taldiaz.

00:00 Lamiñei eta Neardenthal gizonei. ongi etorrixie. Horren ostien dantzaldixe.

29, zapatue

12:00 Samigelen ohorez mezie.

12:00-14:00 eta 16:00-19:00 Puzgarrixek, ohe elastikuek eta zezen mekanikue.

18:00 Irrati bidez kontrolatutako

automobillen Garagartzako III. sarixe.

22:30 Dantzaldixe IKABI taldiek alaittute.

04:00 Auzoko gautxorixendako txokolatadie.

30, domeka

12:00 Mezie auzoko hilddakuen alde.

12:30 TXIKITXU taldiaz euskal dantza erakusketie.

14:30 Auzo bazkaixe.

18:30 Erromerixie HAITZAMA taldiaz.

Barikuen eta zapatuen buzkentzak egongo die 18:30etik aurrera.

han. Udanez da ekintzarik izan, baina urrian berriro hasiko dira jarduerak antolatzen.

Aipatu bezala, auzoko batzarrek ere egiten dira. Auzo batzordearen bulegoa egokitu dute han, eta auzoarekin zerkusia duten gaiak lantzen dituzte. Batzorde horren helburua da auzoko arazo, konponbide

eta proposamenen gainekoak aditzera ematea. Beste askoren artean, egunotan Egitamu Orokorraz eta Fagorren arazoak berba egin da gehien, baina une honetan, batzordeak buru-belarri dihardu jaiak antolatzen. Lan horretan uztailean hasi ziren eta iraila ezkeror aurrera sutsu dabilta aurten-

go San Migelak prestatzen zortzi bat lagun.

Auzo-etxearen nondik norakoak, baina, ez dira hor bukatzen. Patxisena auzo bazkari edo afariak egiteko leku paregabea da. Izan ere, San Migel jaietan buzkantzak jan izanagatik egingo zaie eza-gun etxea askori.

... **LILURATA** ...
OIHALAK
 Denboraz prestatu
Maritxurako jantzia
 Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 - 79 89 72


KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
 Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
 Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
 ARRASATE

Helen Cooper: "Hemen bizi naiz eta hau da nire etxea"

Helen Cooper Ingalaterran jaio zen. 29 urte ditu. Eskozian bizi izan zen, 1996ra arte. Urte hartan, Arrasateko Idiomaster akademiara etorri zen, hilabete iraun zuen ikastaro trinko baten irakasle gisa lan egiteko. Herrian oso gustura bizi ei da, eta, etorri zenetik gaur arte, hemen bizi da. Helenek dioenez, ez da ia aspertzen. Horrez gain, inguruko mendiak oso gustuko ditu eta zaletasun handia dauka horietara joateko.

-Noiz eta zelan etorri zinen Arrasatera?

-1996. urteko San Juanetan etorri nintzen. Orduan, literatura irakasle nintzen Eskozian. Lagun baten anaiak Arrasateko Idiomaster akademia zeukan. Ikastaro trinko baterako irakasle bila zebilen eta animatu egin nintzen. Handik bi astera hemen nengoen.

-Ezagutzen zenuen Arrasate? Eta Euskal Herriko zerbait?

-Ez nekien ezer Arrasatez. Eta Euskal Herriaz ere ezer gutxi. Donostia bai, Hemingway idazlearen liburu batean irakurrita.

-Zer pentsatu zenuen Arrasatera lehenengo aldiz heldu zinenean?

-San Juanetan heldu nintzen, lehenengoko inpresioa oso ona izan zen: harrিতuta gelditu nintzen, jaiak ziren, jende ugari zegoen. Hasieran, hilabete baterako etorri nintzen, gero, beste urtebete jarraitzea erabaki nuen eta hemen nago oraindik. Duela bi urte, Idiomasterreko bazkide egin nintzen.

-Dagoeneko bost urte daramatzazu herrian. Zer duzu gustukoaren Arrasatetik?

-Jendea, baita mendia ere. Oso gustuko dut mendira igozte. Hemen igo nintzen lehen aldiz mendi batera, eta dagoeneko zaletasun handia dut. Udalatxan askotan izan naiz, baita Murun, Kurtzeberrin, Anboton eta Pirinioetan ere. Akademian egiten dudana ere gustatzen zait, jende asko ezagutzeko aukera eman dit. Herriko giroa ere ondo dago. Herri bat izan arren, gauza asko egiteko aukera dago.

-Eta zer ez duzu atsegin?

-Garraio publiko eskasa. Automobil barik zaila da beste herri batera kontzertuak ikustera edo beste edozertara joatea. Etxeen salneurriak ere ikaragarri handiak dira. Horrez gain, errekaen egoera lotsagarria da, zerbait egin beharko lukete. Izugarrizko kiratsa dauka. Glasgow eta Newcastle moduko hiri handietan bizitzen ohituta, herri baten bizitzea arrosa egin zitzaidan, baina ohitu egin naiz eta orain nahiago dut hemen bizitzea hiri handi



baten baino.

kotzat dut nire burua.

-Gustura zaude herrian? Familiaren eta lagunaren hutsunea sumatzen duzu?

-Urtean behin joaten naiz Ingalaterrara. Hangoen hutsunea sumatzen dut; lagunak ni bisitatzera etortzen dira betiere. Baina ni hemen bizi naiz eta nire etxea hemen dago. Ingalaterrakotzat baino, Arrasate-

Zer moduz moldatzen zara gaztelaniarekin? Eta euskararekin?

Lehenengo bi urteak atzerri-tarrekina bizi izan naiz, baina gerora, zerbait ikasi dut. Herri baten bizitzearen abantaila da. Euskarazko berba gutxi batzuk dakizkit, baina hemen bizitzeko, ikasi egin beharko nuke.

**JADE**
ILE APAINDEGIA

Maritxu Kajoi
egunerako makilatu eta orraztu
3.300 ptatik aurrera

ZATOZ!

Maalako Errabala, 21-B
ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

PlazoNet EUSKADIKO KUTXA

3.000 eurotik 24.000 eurora
(499.158 ptatik 3.993.264 ptara)



Errentagarritasunaz dakitenak
dagoeneko etorri dira hona.

www.cajalaboral.com

Epea: 3 hilabete

Gutxienezko zenbatekoa: 3.000 euro (499.158 pezeta)

Gehienezko zenbatekoa: 24.000 euro (3.993.264 pezeta)

Kontratazio eskusiboa: Caja Laboral Neten bitartez

Interesen likidazioa: mugaegunean

UTBa 3.000 eurotik (499.158 pezeta) aurrera. Eskaintzak 12.000 milioi pezetako muga du.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zurekin elkarlanean

PATXI USOBIAGA (ESKALATZAILEA)

«Araotz nire bigarren etxea da, edo agian lehena»

Espainiako Txapelketan ez da egunero bigarren postua eskuratzen.

Ez, oso emaitza ona da, baina triste samar ere gelditzen zara, izan ere, lehenengo postua nahiko hurbil izan nuen. Txapelketa aurreko asteburuan izan zen, Oviedon, eta, egia esatearren, gauzak ez nituen guztiz ondo egin. Finalen proba bi izan nituen, eta bietan ere oso erraz nindoan. Errazegi, esango nuke, eta horren ondorioz lasaitu egin nintzen. Tentsio barik nindotan, eta horren erruz lehen postua eskuetatik joan zitzaidan.


Hortaz, hurrengorako gogotsu izango zara.

Bai, hurrengo txapelketa Espainiako Kopa da. Dagoeneko proba bi izan dira, eta azkena falta da. Proba azaroren 10 eta 11n izango da, Marbellan. Urruti samar geratzen da, baina joan beharko gara.

Horrelako bidaiarik egiteko dirulaguntzarik izaten duzu?

Bai, babesleen partetik dirulaguntzaren bat edo beste izaten dugu. Une honetan, nik Boreal markarekin dihardut, eta horrek nolabaiteko babesa ematen dizu. Horrez gain, Gipuzkoan Kirolgi Fundazioa dago; nahiko berria da, baina kirol askori dirulaguntza onak ematen dizkio, bai eskalatzeko, bai entrenatzeko baita bidaiak egiteko ere. Fundazio horrek, gehienbat, kirol minorizatuei laguntzen die, hortaz, alde horretatik ezin gara kexatu.

Domina eskuratu ondoren, ikusi duzu zeure burua egunkariren baten?



Hogeita bat urteko gazte hau bigarren geratu da Espainiako Txapelketan. Eibartarra izatez, Araotz bigarren (edo lehena) etxea duela onartzen du, baina negu partean Arrasateko boulderrean entrenatzen da. Bizitza erdia baino gehiago darama eskalatzen, 10 urterekin hasi zen-eta. Hasieran, aitarekin joaten zen hara eta hona, baina adin batetik aurrera, lagunekin edo bakarrik ere animatzen zen eskalatzera. Gidabaimena ateratzeko motibazio berezia zeukan, eta hamazortzi urte egin orduko gidabaimena eskuratu zuen. Sekulako aurrepausoa izan zen, dagoeneko autobusez edo autostop egi-teaz neka-neka eginda zegoen-eta.

Ez, eta ez da harritzekoa; izan ere, gaur egun, futbola baino ez da azaltzen. Hala ere, ziur nago zerbait azalduko dela, baina mendiko aldizkari espezializatuetan izango da. Egunkari arruntetan, eguneroko

albisteetan, ez dut uste horrelakorik sartuko dutenik, baina asteburuko gehigarriren baten agertuko da.

Negu partean Arrasaten entrenatzen ei zara.

“Gaur egun, errazagoa da eskalatzen ikastea. Hala ere zerbait lortzeko burugogorra izatea baino ez da behar”

Bai, Arrasateko boulderra zabaldu zutenetik hona, hara joaten naiz entrenatzera. Udan kanpoan eskalatzen dugu, baina eguraldi txarra egiten duenean, rokodromoetara eta boulderretara jotzen dugu. Arrasatekoa oso ondo dago, eta lagun asko ditut han.

Zer-nolako harrobia dago Arrasaten?

Ona, oso ona esango nuke. Arrasateko gazte ugari ibiltzen da han entrenatzen; hala ere, astero-astero jende berbera joaten da.

Gaztetxo batzuk ere hurbiltzen dira, hamaika urte inguru izango dituzte, eta harritu egiten zara, oso gazte ikusten dituzulako, baina ni ere adin horrekin hasi nintzen eta poztu egiten zara.

Gazte horiek bidea landu-agoa daukate?

Orain hamar urte gauzak bestelakoak ziren. Eskalada ez zen gaur egun bezain seguru, eta entrenatzeko aukerak ere txikiagoak ziren. Gaur egun erraztasun handiagoak dituzte, baina horrek ez du ezer esan nahi. Zerbaitetan aurrera egiteko burugogorra izan behar zara, eta nahiz eta erraztasun asko izan, zeure partetik ez baduzu guztia jartzen, inoiz ez duzu ezer lortuko.

Araotz ongi ezagutzen duzu?

Esango nuke Gipuzkoan bizi garen eskalatzaile guztiok oso ondo ezagutzen dugula. Nire bigarren etxea dela esango nuke, edo lehena, han denbora luzea igaro dut-eta. Azkenaldian, oso famatu egin da, izan ere, eskalatzeko oso ondo dago.

Arrasateko taldeak abian

Arrasateko taldeek dagoeneko gainean daukate denboraldi hasiera, eta oraingo asteburuan, aurrendenboraldian egingandako lana erakusteko lehenengo azterketa izango dute. Futboleant, Raul Leibaren mutilek Zestoaren aurka jokatuko dute lehen norgehiagoka. Partidua Atxabalpen izango da, zapatuan, arratsaldeko lau eta erdietatik aurrera. Denboraldia luzea bada ere, komeni zaie

hasieratik puntuak batzen hasia. Saskibaloian, Arrasateko taldeak entrenatzaile berria izango du, Iker Zubiria oñatiarra, hain justu; eta lehen norgehiagoka zapatuan jokatuko dute, Pais Vasco Siglo XXI taldearen aurka. Eskubaloiak, bestalde, aste bat gehiago izango du denboraldia prestatzeko. Aurten, Arrasatek bi talde izango ditu senior mailan.

Besaide Eguna



Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, domekan jende asko hurbildu zen Besaidera. Urtero moduan, aurten ere, mendian hildako euskal mendizaleak omentzeko ospatu dute Besaide Eguna. Trikitilariak, txalaparta, bertsolariak eta urteroko meza izan ziren, eta lanbro

eta hodei artean pasatu zuten goiza hara hurbildu zirenek. Hala ere, mendizaleen artean giro aparta izan zen, eta jende ezaguna ere izan zen Besaiden. Han izan ziren, besteak beste, Pako Iriondo EMFko presidente ohia baita oraingo presidentea ere, Antxon Bandres.

Kirolari ezagunak Arrasaten

Martitzen arratsaldean, kirolari ezagunak izan genituen gure artean. Forum kirol dendak atek zabaldu dituela aprobeixatu eta inaugurazio egunean kirolari asko hurbildu ziren Arrasateraino. Realeko Aitor López Rekarate, Agustin Arantzabal eta Alberto López atezaina izan ziren. Txirrindulariek ere ez zuten kalerik egin: besteak

beste, Alvaro González de Galdeano ONCE-Eroski taldeko ziklista eta Euskaltel-Euskadiko bigarren zuzendaria, Ruben Gorospe, izan ziren. Horrez gain, mendizaleen ordezkari moduan, Debagoienean oso ezagunak diren bi mendizale izan ziren: Jon Lazkano bergararra eta Alberto Iñurrategi aretxabalarra.

PERKUSIO ETA AHOTS IKASTAROAK

Tokia: Arrasateko Gazteluondo aretoan
Noiz: Astelehenero, jai ez bada.
Ordutegia: 18:00etatik 20:30era (Hamabi ordu eta erdi ikastaro bakoitza).
Prezioa: Ikastaro bakoitza 3.500 pezeta kostako da.
Informazioa eta izena ematea: Gazte Bulegoan edo 943 79 80 25 telefono zenbakian (Iñaki).

ROCK PERKUSIOA

Irakaslea: Iñaki Bruña

Egunak: Urriaren 1, 8, 15, 22 eta 29an.

- Rock-and-rolla
- Rock-funka
- Rock fusioa: samba, afrikarra. Klabeant.
- Rock-ritm and bluesa.
- Rock gogorra.
- Rock dance.

Musikari eta rockzale guztiendako gomendagarria. Ikasteko eta ondo pasatzeko aukera.

AHOTS IKASTAROA

Irakaslea: Jesus Elizegi "Tuti".

Egunak: azaroaren 5, 12, 19 eta 26an eta abenduaren 3an.

- Kantu harmonikoa: Bi tonu desberdin ateratzeko teknika.
- Bokalak, eta horiek gorputz barruan erresonantzia non egiten duten.
- Barruko ahotsa.
- Abestiak eta danborra.

Ikastaroa praktikoa eta terapeutikoa izango da. Gure benetakoa ahotsa aurkitu. Konfiantza eragin. Harremanak egiteko laguntza. Gure osasun fisiko, psikiko eta espiritual hobetzeko.

Abendutik aurrera:

- **PERKUSIO AFRIKARRA.**

Emailea: Pedro (Mirandakoa).

- **SALSA LATINDARRA.**

- **SAMBA.**

Emailea: Ino, Chatanuga Bembe-koa.

- **FLAMENKOA ETA KAXOIA.**

Emailea: Angel López (Mikel Urdangarinen bateria jotzailea).

- **AZABEA eta beste hainbat doinu:**

FUSIOA, "IMPROVISARIA".

Emailea: Iñaki Bruña.



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Sails ■

Motokrosa Mojategin

Irailaren 30ean, Arrasateko IV. Motokros Txapelketa jokatuko da Mojategiko zelaian, Musakolako kiroldegiko atzealdean dagoen zelaian, hain zuzen ere. Txapelketa Arrasateko Motosale Elkarteak antolatzen du, eta gogoan izan, Euskadiko Motokros Txapelketarako baliagarria izango dela. Txapelketan, senior, junior, kadete eta gazte mailakoek parte hartuko dute, eta bi zilindrada izango dira: alde batetik, 125 zentimetro kubikotakoa eta, bestetik, 250 zentimetro kubikotakoa. Entrenamenduak arratsaldeko hiru-eretan izango dira, eta ordu bat geroago lasterketak hasiko dira. Zilindrada bakoitzeko bi



saio izango dira, hortaz, domeka horretan, motorra eta ikuskizuna atsegin dituenak kirol horretaz gozatzeko aukera paregabea izango du. Laster-

keta ikusteko ordaindu egin beharko da. Nagusiek zazpichun pezeta, eta hamabi urte-tik beherakoek, berriz, bostehun.

Gimnasia erritmikoa

Arrasateko gimnasia taldeak jakinarazi gura du aurtengo ikasturtea hasi dela. Aurtengoa, eskolek ordutegi bera izango dute eta leku berean izango dira. Era berean, gimnasia tal-

dekoek gonbita egiten diete seme-alaba gaztetxoak dituzten gurasoei, umeak kirol hori probatzera animatzeko. Denboraldi honetan, 70 neskatila arrasatearrek eman dute ize-

na. Gaztetxoek bost urte dituzte, eta nagusienak, 20. Arrasateko taldeak emaitza onak lortu ditu orain arte, baina, bestalde, mutilen falta sumatzen dute.

Arrasateko kirol eskaintza

Aukeak prest du dagoeneko aurtengo denboraldiko kirol ekintzen programa, eta Musakolako igerilekuan lanean badihardute ere, urriaren 8rako lanak amaituta egongo direla aurrez ikusi dute. Arrasateko Udaleko Kirol zerbitzuek azken urteotako kirol eskaintza zabalari eustea erabaki dute, eta arrasatearrek hamabi kirol ikastaro izango dituzte aukeran. Horrenbestez, umeek, gazteek eta hiru-garren adinekoek ez dute aitzakiarik izango kirol ez egiteko.

Besteak beste, gutxitu psikikoek astean birritan egin ahal izango dute gimnasia, eta sasoiaren egoteko gimnasia egin gura dutenek ere antzeko aukerak izango dituzte. Kirol ikastaroetan parte hartu gura duenak lehenbailehen eman beharko du izena Musakolako kiroldegiko bulegoetan. Ikastaro merkeenak mila pezeta balioko du eta garestienak, bost mila. Horrekin lotuta, bazkideek salneurri merkeagoak izango dituzte.



URONDO


Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

Iñaki Riviere, finalista Madrilen

Iñaki Riviere margolari arrasatearra Antonio Camuñas fundazioak antolatutako lehiaketan finalista izan da. *Arquitectura y Paisaje Urbano* izeneko margo lehiaketan lortu du hori mondragoetar gazteak. Lehenengo hogeitaz artisten artean geratu da, *A través de ti VIII* izeneko margolanarekin. 122x150 zentimetroko mihisea da, eta elementu nagusiak arkitektura, paisaia eta argia dira.



A través de ti bildumako zortzigarren koadroa izan da finalista.

IRITZI ONA

Irabazleaz gain, epaimahaiak hogeitaz artista nabarmentzen ditu lehiaketa horretan, eta Iñaki Riviere horien artean geratzeak hainbat ordain ekarri dizkio. Alde batetik, bere obra joan den astean inauguratu zen erakusketa baten bar-

ne dago, Villa Madrid museoa; bestetik, antolatzaileek Riviereren izena eta curriculum sartuko dute finalista guztien datuekin egindako katalogo baten. Mondragoetarra pozik dago emaitzarekin, eta hala esan du: "Lehiaketa garrantzitsua da; Madrilen izan

nintzenaldi baten ikusi nuen, eta aurtan, lehenengo aldiz parte hartu dut. Katalogo horretan agertzeak nire burua ezagutzera emateko lagun diezadake".

Iñaki Madrilerara joan zen joan den egunean, erakusketaren inauguraziorako.

Irailaren 28ra arte matrikulazio epea zabalik

Zabalik dago, irailaren 28ra arte, Jesusi Etxebarriaren musika eskolarik 2001-2002 ikasturterako matrikula egiteko epea. Hasi, hasi dira eskolak, baina irailaren 28ra arte ikasle berriak hartzen jarraituko du eskolak.

Aukera zabala eskaintzen du Iturriotz kaleko akademia horrek: solfeo, gitarra (klasikoa eta elektrikoa), baxua, pianoa, kantu korala, akordeoia, txistua eta txirula. Ikasleak adin guztietakoak direnez—bost urteko ume koskorretatik 80 urteko beteranoe-tara bitartean—, ordutegiak ere haien ohituretara moldatuta daude: hainbat eskola 10:00etatik aurrera ematen dira, eta arratsaldean, 14:00etatik 22:00ak ingurura bitartean.

SOLFEO BARIK

Ez da beharrezkoa solfeo ikastetik hastea musika tresna bat jotzen ikasteko; ez, behintzat, tresna guztien kasuan. "Hamabost urte inguruko mutil asko etortzen zaizkit gitarra elektrikoa eta baxua jotzen ikastera, eta zifra bidezko irakaskuntza-sistema erabiltzen dut eurekin; horrela, ez dute solfeo ikasi beharrik", diosku Jesusi Etxebarriak. Iaz, txistuarekin metodo berbera erabiltzen hasi zen akademia, baina horren kasuan, "hobe da solfeo nozio batzuk izatea", dio Jesusik.

Akademiako ikasle izan gura baduzu, 943791767 edo 652713828 telefonoetara deitu baino ez duzu.

Bestalde, herriko beste musika akademiak, Arrasate Musikalek, itxita du honez gero matrikulazio epea.

Ekin-en udazken kulturala



Ekin Emakumeak elkarteak egitarau oparoa antolatu du udazken honetarako. Ikastaroak, tailerrak, txangoak eta berbaldiak daude aukeran elkarte horren agendan. Gehienetarako izena emateko epea zabalik dago urriaren hasierara arte.

Datozen egunotan abiara-

ziko du Ekin-ek bere lehenengo eskaintza: eskulan ikastaroa, hain justu. Egurra, lamina, margoak, material birziklatuak, eztainua, zilarra, beruna eta kristala langai moduan erabilia, denetariko eskulanak egiten ikasiko dute parte hartzaileek. Irailaren 25etik abenduaren 18ra bitartean izango

da ikastaroa, martitzenero, 15:30etik 18:00etara.

DANTZA ETA ZERAMIKA

Areto dantzen ikastaroa ere antolatu du Ekin-ek, hastapen eta sakontze mailetan banatuta. Zeramika tailerra ere izango da aukeran; bi ikastaro horiek urriaren erdialdean hasiko dira, eta izena emateko epea urriaren 11n bukatuko da.

URRITIK AUERRERA

Urriaren erdialdetik aurrera, beste ekintza batzuk izango dira: txango kultural bat eta emakumeen intereseko gaien gainean berbaldiak egingo ditu emakumeen elkarte arrasatearrak. Besteak beste, erretiroa, dieta eta moda izango dira berbagai.

JUAN GONZALEZ CUESTA (MARGOLARIA)

«Nire estilo propioari leiala izaten saiatzen naiz»

Bergararra dugu Juan González Cuesta margolaria, baina Arrasaten egiten du lan, eta hemen, Iturriotz kaleko Harresi aretoan, ditugu ikusgai, joan den egubakoitzetik aurrera, bere margolanik onenatariko batzuk. Haraino hurbildu gara Juan-ekin berba egiteko.

–Zure lehenengo erakusketa da?

–Ez, ez da lehenengoa. Lehen ere egin izan ditut taldekako hainbat erakusketa, batez ere Bergarako Juanjo Altunaren margo eskolako gainerako kideekin, baina baneukan gogoia bakarkako erakustaldia egiteko, eta azkenean animatu egin naiz.

–Noiz eta zelan hasi zinen margotzen?

–Orain dela hamar bat urte ekin nion. Betidanik, umetatik, gustatu izan zait marraztea; baina gerora alde batera utzi nuen. Gero, urte askoren ondoren, margotzen hasia erabaki nuen.

–Zeure kabuz ikasi duzu ala eskolak hartu dituzu?

–Juan Jose Altunarekin ikasi dut. Haren eskolan hasi nintzen eta hantxe jarraitzen dut orain ere. Margotzen sekula ere ez duzu guztiz ikasten, beti dago zer edo zer ikasketeko.

–Bergararra izanik, zer dela eta aukeratu duzu Arrasate lehenengoz bakarkako erakusketa egiteko?

–Hemen lan egiten dudanez, sarritan izan dut aukera Harresi aretoa etortzeko, eta aretoa bera oso gustuko dut; horrez gain, Arrasateko Udalak aukera eskaini dit, eta aprobetxatzea erabaki dut.

–Bilduma oparoa eskegi duzu Harresin... Askoz margolan gehiago izango dituzu, baina...

–Hemen berrogei bat eskegi ditut. Pila txo ederra dut honezkero, bai. Bildumako batzuk Bergarako Nahikarin egin gura



dudan erakusketa batetarako erreserbatu ditut. Baina, eginda ditudan guztien artean, oso zaila iruditu zait erakusketetarako margolanak aukeratzea.

–Zelan definituko zenuke zure estiloa?

–Denetarik dago. Nire ustez, nahiko surrealista da, inpresionismo ukituekin. Natura hiletan-eta, ordea, errealismoa nagusi da, margo nahiko figuratiboa. Bestalde, koloreari garrantzi handia ematen diot; grisa eta antzeko tonuak atsegin ditut, eta horiek erabiltzen ditut, batik bat. Horretan nabarmen da Bergarako eskolatik natorrela; izan ere, eskolak horrek tonalitate grisei ematen die pisu handiena.

–Teknikari dagokionez, zein duzu gustukoak?

–Olioia erabiltzen dut; horixe da nire teknika.

–Baduzu gustuko margolaririk, eredurik? Eta gustuko margolanik?

–Juan José Altuna, nire maisua dena, asko gustatzen zait. Haren estiloa eta barietatea

gustatzen zaizkit. Bestelakoak artean, ez dakit, bada, ... gustatu, gustatu, asko gustatzen zaizkit, baina ez nuke bat azpimarratzen jakingo. Ez dut eredurik, egia esatearren. Saiatzen naiz nire estilo propioari eusten eta leiala izaten. Margolan famatuak ere berdin gertatzen zait, asko gustatzen zaizkit, baina ez margolan faboritorik.

–Arrasaten eta, oro har, ibar osoan margolari asko dago... Zer deritzozu?

–Oso-oso ondo iruditzen zait hainbeste margolari eta margolanekiko horrenbeste zaletasuna izatea. Erakunde publikoen laguntzak ere jasotzen ditugu: egoitza, adibidez.

–Noraino iristea gustatuko litzaizuke margolari moduan?

–Ez dut epe luzerako inolako asmorik ez eta helbururik ere; margolaritza zaletasun moduan hartu nuen eta hala izaten jarraitzea gura dut. Erakusketa antolatuta ahal izatea eta noizbehinka lanen bat saltzea nahikoa da niretako, horrek nahiko pozten nau.

« Gustatu, margolari asko gustatzen zaizkit, baina ez nuke bat azpimarratzen jakingo; ez dut eredurik »

AURKITU LIRAINEN ZURE ONGIZATEAREN SEKRETUA: EDERTASUNAREN ETA OSASUNAREN ARTEKO OREKA

ESTETIKA ZENTRUA

AUTOMAKILLAJE IKASTAROA

Egunak: Urriaren 1etik 3ra.
Astelehenetik eguaztenera.


Goizez: 09:30etik 11:30era.
Arratsaldez: 18:30etik 20:30era.

Prezioa: 8.000 pezeta.

Deitu lehenbailehen. Talde murriztuak (4 lagun)

SOLARIUM ESKAINTZA BEREZIA

Solarium horizontala dutxarekin eta solarium bertikala
10 bonu + 1doan: 8.000 pezeta.
Eskaintza baliagarria abenduaren 31 arte.



GIMNASIO ZERBITZUA

- Aerobiceko hastapen-urratsak
- Power (muskulazioa)
- Step
- Aerobica
- Gorputza zuzentzeko gimnasia
- Mantenimendu gimnasia
- Luzatze-ariketak / Tonifikazioa
- Lurrunezko sauna doan
- %10eko deskontua estetikan



Lirainen osasunak, edertasunak eta plazerrak bat egiten dute



ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Bixente Ferrer, 1
ARRASATE

Tel.: 943 79 52 17



Jon Lasagabaster Lasagabaster dendakue

Izetez atxabaltarra bada be, Jonen famillixie aspaldi etorri zan Mondragoera bizi izetera, eta orduen, Lasagabaster dendie zabaldu euen. Dagoeneko hamabost urte daroie dendan lanien, eta mundu horretan jakin biherreko danak lanien ikasi dittu. Rock musikie asko gustetan jako, eta gazte-gaztetatik gitarrie jo izen dau. Argi dago Jonendako musikie oso inportantie dala, eta bestela, irakurri.

-Esaidazu guzur bat.

Garai honetan lan gutxikin gabitz.

-Amets bat.

Pozik bizi izetie.

-Amets txar bat.

Gerrak-eta.

-Egin dozun azken biajie.

Parisera.

-Txartel horixe, zeñei?

Politikuei.

-Eta gorrix?

George Bush-ei.

-Film bat? Liburu bat? Disko bat?

Mad Max / Chacal / Judas Priest taldiaren edozein.

-Animalixe izetekotan, zein?

Txorixe.

-Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

-Eta prostituziñue?

Baita be.

-Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue.

-Etxeko zapatillek ala zapatak?

Etxeko zapatillek.

-Ze gustetan jatzu Mondragoetik?

Herriko girue.

-Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aparkalekuen arazue.

-Eta lehendakari izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Ez dot neure burue horretan ikusten.

-Bizio bat?

Tabakue.

-Ze deitxo Arrasate Press Goienkaria barruen sartziari?

Ondo.

-Ze gehittuko zeikixo Arrasate Pressei? Eta ze kenduko zeikixo?

Ez neuke ezer gehittuko, ezta ezer kenduko be.

-Bizi izetera hiri batera juetekotan, nora?

Donostiara.

-Ezagutu dozun pertsona interesante bat.


Baron Rojo musika taldie.

-Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Rock musika talde ezagun bateko norbait.

-Tranpan ibilttekotan norbaitekin, zeñekin?

Je, je, neskaren batekin.



“Marka ezagun bat pagetarakuen, jeneralien kalidadie pagetan dozu”

-Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

Gutxitan ikusten dot telebisiñue, eta irratixe be gutxitan entzuten dot.

-Zertan gastauko zeunke dirue?

Musika ekipo ona erosiko neuke.

-Hondartza ala mendixe?

Hondartza.

-Zer da gehixen saltzen dozuena?

Frakak.

-Ze ez jatzu gustetan lanetik?

Goixien jaikittie lanera etorteko.

-Dendari ez bazitza, ze izengo zitzake?

Musikue.

-Ze ez zeuke sekula be jantziko?

Gona bat.

-Kalidadie ala markie pagetan da?

Neure ustez, horreik bixok, jeneralien, batera doiez.

-Zenbat nobixo jantzi ditzuzu boda egunerako?

Idearik be ez dauket, asko.

-Mondragoen jentie ondo janzten da?

Jeneralien bai.

Zelan adoptatzen da ume bat?

Umeen adopzioa pil-pilean dagoen gaia da, eta ume bat adoptatzeko zein pauso jarraitu behar diren aztertuko dugu datorren astelehenean, 10:15ean.

Horretarako, Arantzazu Uribetxebarria arrasatearren laguntza izango dugu. Hark ume txinatar bat adoptatu berri du, eta esperientzia hori kontatuko digu. Bestiak beste, adopzioa legezkoa izateko zein bide jarraitu azalduko digu Arantzazuk.

Adopzioaren inguruko edozer gauza jakin nahi izanez gero, gogoratu telefonoz esku har dezakezula: 943- 71 17 31.



Astelehenean eskainiko dizue Arrasate Irratiak adopzioen gaineko elkarrizketa.

“Hitz eta Pitz”



Arrasate Irratian laster hasiko dira kolaboratzaileen saioak. Gau partean izango dira saio horiek, eta dagoeneko hainbat prest daude.

Mikel Aranburu oñatiarak *Hitz eta Pitz* izeneko saioa egingo du; saioan, pertsonaia ezagunak elkarrizketatuko ditu: esaterako, Kontxu Odriozola (Goenkaleko Maria Luisa) eta Lorena Bernal modeloa. Gainera, musikan argitaratu diren azken lanak aurkeztuko ditu.

Gazte Bulegoa

Gazte Bulegoan informazio ugari jasotzen dute: bekak, bidaiak, lanpostuak... Dorleta Kortazar Gazte Bulegoko teknikaria da, eta eguenero irratiara etortzen da bulegoko nobedadeen berri ematera.

Quebec ezagutzeko aukera

Julen Arexolaleiba sei hilabetez egon da Quebec-en. Ikasten izan da han, baina herrialdea ezagutzeko aukera ere izan du. Martitzenean, 11:30ean, Quebec zelakoa den jakiteko aukera izango dugu Arexola-

leibarekin, eta hango egoera soziolinguistikoaren gainean ere jardungo dugu.

Quebec-en hizkuntza ofiziala frantsesa eta ingelesa badira ere, biztanleriaren gehiengoak frantsesez hitz egiten du.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



1.Begoña Landa+ 2.Eguskiñe Landaluce 3.Miren Balerdi 4.Sor Pilar 5.Sor Mariana 6.Itziar Villar 7.Mª Tere Zarraoa 8.Miren Bedia
9.Garbiñe Zubiaga 10.Carmen Ubago 11.Nieves Goitia 12.Glori Maza 13.Antoni Gómez 14.Amaia Juldain 15.Libere Iñarra+ 16.Loli Eguren+
17.Miren Yarza 18.Ezezaguna 19.Asun Roa 20.Asun González 21.Mª Bel Lazcano 22.Merche Vitoria 23.Jaione Uribe 24.Aguedita López
25.Maribel Sagasta 26.Arantxa Usobiaga 27.Pilar Mendaratz 28.Sor Teresa 29.Itziar Mugika+ 30.Romana Altube+ 31.Tere Berecibar
32.Mª Carmen Elkorobarrutia 33.Loreto Del Valle 34.Cristina Lete 35.Estibaliz Landa 36.Arantxa Urrutia 37.Trini Ayestaran
38.Arantxa Otaduy 39.Nieves Madinabeitia 40.Arantxa Arregui 41.Pili Martin 42.Aintzane Gorroñoigoitia 43.Merche Uranga 44.Sor Angeles
45.Rosario Altube 46.Begoña Zubillaga 47.Isabel Barrena 48.Lorea Uribesalgo 49.Asun Madina 50.Carmen Galdos 51.Trini Kintana
52.Conchita Roa 53.Jaione Urrutia 54.Maite Urrutia 55.Marichu Aguirregomezkorta 56.Sorione Osinaga+ 57.Jaione Bengoa
58.Juli Diaz de Mendoza 59.Maritxu Gorosabel 60.Carmen Elorza 61 Miren Ayastuy

Ikus dezakezuen zintzo itxura hori erakusten zuten gure argazkiko neskatilatxo arrasatearrek. Mesedetakoek atera zuten argazkia, euren irakasleekin, 1946an. Frantziskotarren klaus-troetan dago aterata.

Argazkia:
Aguedita López Rubio.
Berriemaile
Arantxa Urrutia.



Ane Lasagabaster eta Karmele Bikuña

ANE LASAGABASTER HORTZ KLINIKA



- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta inplantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Otalora, 18 solairuartea D • Tel.: 943 79 13 68
20500 Arrasate

Goizez eta arratsaldez irekita

Beraietaz zerbait
jakin nahi duenak
bila ditzala euren
oinatzak eta
jarrai dezala
bidea zabalduz

Borrokarako dei eginez, irrintzi bat dabil.
Euskal Herriak merezi du!





Aukera hau galdu behar duzu ?

Opel Corsa

1.363.000 pta*.

OSAGARRIAK

- 1.2 16V 75eko Zaldi Indarreko motorea.
- Gidariarentzako airbag-a.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Pedal barneragarriak.
- Segurtasun-gerrikoak pretentsioekin.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak.
- Ixitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Funtzio anitzeko pantaila.
- Mantenimendu azterketaren adierazlea.
- 30.000 Km-eroko mantenimendua.
- Faro piztuentzako alarma.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioerengatiko zulaketaren aurkako 12 urteko bermarekin.



Opel Astra

1.804.000 pta*.

OSAGARRIAK

- 1.6 84ko Zaldi Indarreko motorea.
- ABS freno sistema.
- Aurreko eta alboko airbag-ak.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Pedal barneragarriak.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak.
- Ixitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Altuera eta sakonera egokitzeko moduko bolantea.
- Lapurreten kontrako geldiarazle elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioerengatiko zulaketaren aurkako 12 urteko bermarekin.

Opel Zafira

2.643.000 pta*.

OSAGARRIAK

- 1.6 16V 100eko Zaldi Indarreko motorea.
- Zazpi leku.
- ABS freno sistema.
- Aurreko eta alboko airbag-ak.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Pedal barneragarriak.
- Direkzio lagundua.
- Kristal-igogailu elektrikoak aurrealdean.
- Kanpoko atze-ispilu elektriko eta termikoak.
- Ixitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Altuera eta sakonera egokitzeko moduko larruzko bolantea.
- Lapurreten kontrako geldiarazle elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioerengatiko zulaketaren aurkako 12 urteko bermarekin.

Opel Vectra

2.450.000 pta*.

OSAGARRIAK

- 1.6 16V 100eko Zaldi Indarreko motorea.
- Aire girotua.
- ABS freno sistema.
- Aurreko eta alboko airbag-ak.
- Buru-euskarri aktiboak aurrealdean.
- Goi fidelitateko musika katea.
- Kristal-igogailu elektrikoak aurrealdean.
- Kanpoko atze-ispilu elektriko eta termikoak.
- Ixitura zentralizatua urrun-managailuarekin.
- Altuera eta sakonera egokitzeko moduko bolantea.
- Lapurreten kontrako geldiarazle elektronikoa.
- Karrozeria galvanizatua, korrosioerengatiko zulaketaren aurkako 10 urteko bermarekin.

www.opel.es

OPEL CREDIT



1,2,3 aukerak: Beti auto berria edukitzeko modurik errazena.

* PVP fabrikatzaileak gomendatutako salneurria penintsulan eta Balear Uharteetan. Prezioak barne hartzen ditu garrailoa, BEZ eta matriculazio zerga. Prever plana berundun gasolinako autoendako eta promozio-deskontua auto hauetarako. Corsa Club 1.2, hiru ate 16V 75hp, pakete elektrikoarekin (8.192 euro), Astra Club 1.6 hiru ate 8V 84hp (10.842 euro), Vectra Comfort 1.6 16V 100hp (14.725 euro) eta Zafira Comfort 1.6 16V 100hp (promozio-deskontubirik) (15.885 euro). Baliozko baldintzak irailaren zehar, izakinak bukatu arte. Urtea / modelo 2001.

OPEL

TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g. Telefonoak: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

TAKOLO AUTOAK, S.L.

HELBIDE BERRIA: San Andres auzoa 10-D. Telefonoa: 943 77 30 10. Zerbitzu ofiziala ARRASATEN